

Jurdana Uriarte Lejarragak, Bermeoko Udaleko idazkari nagusiak, ziurtatzen dot, 2022-11-15(e)(a)n, TOKIKO GOBERNU BATZARRAK erabagi hau hartu dauela:

8.- ALMIKE KALEAN 2AN KOKATUTAKO OLALDE ETXEAREN INGURUA BERRONERATZEKO HIRI BERRIKUNTZARAKO PLAN BEREZIA HASIERAZ ONARTZEA.

Xedea

Almike kalean 2an kokatutako Olalde etxearen ingurua berroneratzeko Hiri Berrikuntzarako Plan Berezia hasieraz onartzea.

Aurrekariak

Lehenengoa: 2019ko urrian, Almike kalea 2an kokatuta dagoen Olalde etxearen E.A. 5-8 esku hartze areari dagokion Hiri Berrikuntzako Plan Berezia izapidetzen hasi zen Bermeoko Udala, eta Plan Berezia, URA Ur agentziara, Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Sailera eta Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailera bideratu zen.

Bigarrena: 2019ko abenduaren 3an Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Saileko txostena jaso zen eta bertan esaten zen Hiri Berrikuntzarako Plan Bereziak Olalde etxerako proposatzen dituen esku-hartzeak ahalbidetzeko, eraikin hori alde aurretik, deskatalogatu egin beharko litzatekeela.

Hirugarrena: 2022ko apirilaren 20n URA Ur Agentziaren txostena jaso zan Almike kalean 2an kokatutako Olalde etxearen ingurua berroneratzeko Hiri Berrikuntzarako Plan Bereziaren ingurukoa.

Laugarrena: 2020ko ekainaren 23an Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Administrazioaren Zuzendariaren Ebazpen bidez, Hiri Berrikuntzarako Plan Bereziaren ingurumen txosten estrategikoa egiten zan. Erabagia 202ko uztailaren 9an argitaratu zan EHAAn.

Bosgarrena: 2021eko maiatzaren 15ean Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Saileko Kultura Ondarearen Zuzendaritzako Euskal Kultura Ondarearen EAEko Zentroaren txostena jaso zen Almike kalea 2an kokatuta dagoen Olalde



Agiri hau benetako dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.

Kodea:
07E6000B13BC00B4Y31E4T6O3

Sinadurea eta data

JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA - 17/11/2022
ARITZ ABAROA CANTUARIENSE(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-BERMEOKO ALKATEA - 17/11/2022
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 17/11/2022 11:21:21

EXPEDIENTE ::
2019IDA_ERA_0189
Data: 14/10/2019
Lekua: Bermeon
Erregistro uniditatea:
Erregistro nagusia

CSV: 07E6000B13BC00B4Y31E4T6O3



etxea deskatalogatzeari buruzkoa.

Seigarrena: 2021eko irailaren 30ean Bizkaiko Foru Aldundiko Euskara, Kultura eta Kirola Kultura Ondarearen Zerbitzuaren txostena jaso zen Almike kalea 2an kokatuta dagoen Olalde etxea deskatalogatzeari buruzkoa.

Zazpigarrena: 2022ko urtarrilaren 28an izandako Osoko Bilkuran, Bermeoko HAPOaren katalogoaren aldaketa hasieraz onartzea ebatzi zan. Bizkaiko Aldizkari Ofizialean (27. zenbakia, 2022ko otsailaren 9koa) iragarkia argitaratuta, jendaurrean jarri eta 30 eguneko epean, ez zanez inolako alegaziorik jaso, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 49. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritz, katalogoaren aldaketa behin betiko onartutzat jotzen zan eta iragarkia argitaratu egiten zan 2022ko martxoaren 21eko BAO ean.

Zortzigarrena: 2022ko irailaren 29an Niretxe S.L. enpresak, A.5 Lurralde Areako E.A. 5-8 Esku Hartze Areako Hiri Berrikuntzako Plan Bereziaren testu-bategina aurkeztu eban.

Bederatzigarrena: 2022ko urriaren 28an udal arkitektoak txostena egin eban.

Hamargarrena: 2022ko urriaren 31m Urigintza Saileko teknikariak txostena eta erabagi proposamnea egin ebazan.

Argudioak

Lehenengoa: Udal arkitektoak egindako txostenean adierazoten dan lez, Bermeoko HAPOaren 1.3.3 artikulua arabera, Antolamendu xehatuko planeamenduaren ekimena udalari dagokio, hala ere, edozein pertsona fisiko edo juridikok egin dezake. 1.3.4 artikulua arabera, pertsona pribatuek ahal izango dute HAPOa garatzen dituzten Planak formulatu: Partzialak, Bereziak eta Urbanizazio Proiektuak.

Bermeoko HAPOaren 1.3.5 artikulua zehazten du hiri lurzoruen garapen plangintza dokumentuak Plan Bereziak izango direla.

HAPOaren ordenantzetako 6.2.6 artikuluan xedatzen da A.5 Lurralde Areako E.A. 5-8 Esku-Hartze Areako Almike Kalea 2 zenbakian kokatutako Olalde etxearen birgaikuntza Plan Berezi baten bidez gauzatu dela. (Eraikin balio kulturalduntzat hartzen da katalogoan). Plan Bereziak bertako ingurune urbanoaren egokitzapena eduki beharko du barne eta bere xedea zera izango da: Mehelinen eta urbanizazioaren arazoak konpontzea baita eraikinaren esku-hartzearen izaera zehaztea.

Udalak Olalde etxea katalogotik kanpo utzi du, 2022ko martxoaren 21eko Bizkaiko Aldizkari Ofizialean (55. Zenbakian) Olalde etxea deskatalogatu eta HAPOaren



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoa egiaztatu ahal dozu.

Kodea:
07E6000B13BC00B4Y31E4T6O3

Sinadurea eta data

JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA - 17/11/2022
ARITZ ABAROA CANTUARIENSE(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-BERMEOKO ALKATEA - 17/11/2022
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 17/11/2022 11:21:21

EXPEDIENTE ::
2019IDA_ERA_0189
Data: 14/10/2019
Lekua: Bermeon
Erregistro unidatea:
Erregistro nagusia



katalogoaren aldaketa behin betiko onartu ondoren.

Hala ere, 2021eko irailaren 30ean Bizkaiko Foru Aldundiko Euskara, Kultura eta Kirol Saileko Kultura Zuzendaritzaren txostenean jasotako baldintzak, Hiri Berrikuntzako Plan Bereziaren testu-bategineko HAPOaren arauak garatzeko hirigintza-arauen atalean txertatu dira.

Testu- bateginean txertatu dira baita, URA ur agentziak eskatutako zehaztapenak.

Ekainaren 30eko Lurzoru eta Hirigintzari buruzko 2/2006 legearen 103. artikuluan xedatzen da, HAPOaren zehaztapenen aldaketek kontuan izango dutela, aldaketen izaera, eta horiei dagokien antolamendu-figurak erabiliz gauzatuko direla, 58. artikuluan ezarritakoaren arabera.

Hiri Berrikuntzako Plan Berezi honen xedea da hiri lurzoruaren antolamendu xehatua egokitzea, antolamendu orokorreko parametroak errespetatuz, beraz, horretarako antolamendu figura egokia da Plan Bereziarena.

Hiri Berrikuntzako Plan Berezi honen helburua da, Olalde etxearen inguruko urbanizazio arazoak konpondu eta gaur egungo araudira egokitu, Olalde etxearen ondoko mehelinak estali eta eraikinari erabilera ematea, egoitzazkoa eta komertziala.

Horretarako, Plan Berezi honetan, Olalde etxearen eraikigarritasun ponderatua hartu da erreferentziazat, Hiri Berrikuntzako Plan Bereziak onartuko lukeen eraikigarritasuna kalkulatzeko, hala, hasierako eraikigarritasun ponderatua ez da gainditzen.

Hiri Berrikuntzako Plan berezi honen bidez, jabari publikoari kalean 37,41 m²-ko lagapena egiten zaio, Almike kalea 4an kokatutako eraikinaren lerrokadurara atzeratzen baita eraikin berriaren lerrokadura. Bestalde, gaur egun eremu pribatua litzatekeen aterpea, erabilera publikoa izatera pasatuko litzateke, hortaz, erabilera horrek 52,53 m² hartuko lituzke.

Almike kaleak lerrokadura bateratuko luke Almike kalea 4 eta Almike kalea 2 eraikinen artean. Almike kalean zati horretan kalea bateratu, Olalde etxearen kontrako espaloia eraiki eta aterpera sartzeko irisgarritasuna egokituko lirateke.

Hurrengoak lirateke Hiri Berrikuntzako Plan Bereziaren antolamendu xehatuko parametroak:

Sailkapena: Hiri Lurzoru Finkatua.

Kalifikazio Orokorra: R.2 _ Egoitzazko erabilera mistoa.

Eraikigarritasuna: 873,17 m² egoitzazko erabilera, eraikineko sarrera barne.



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoa egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07E6000B13BC00B4Y31E4T6O3

Sinadurea eta data

JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA - 17/11/2022
ARITZ ABAROA CANTUARIENSE(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-BERMEOKO ALKATEA - 17/11/2022
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 17/11/2022 11:21:21

EXPEDIENTE ::
2019IDA_ERA_0189
Data: 14/10/2019
Lekua: Bermeon
Erregistro unidatea:
Erregistro nagusia



106,22 m² erabilera komertziala beheko plantan.

Tipologia: B+4+AT

Zuzkidura publikoa: Jabari publikoari lagapena, 37,41 m²+ aterpean 52,53 m² Lurzoru eta hirigintza 2/2006 legearen 71. artikuluan adierazten da Hiri Berrikuntzako Plan Berezien helburua honako jarduketa zehatz hauek garatzea izan litekeela: hiri-lurzorua deskongestionatzea, zuzkidura publikoak eta ekipamendu kolektibo pribatuak sortzea, auzoak saneatzea, hiria berroneratzea eta birgaitzea, barne-erreforma, mugigarritasun-arazoak edo estetika-arazoak konpontzea, ingurumena edo zerbitzu publikoak hobetzea, eta antzeko beste batzuk. Helburu horiek betetzeko, jarduketa zehatzak egingo dira, eta jarduketa horiek aurreko antolamenduaren funtsezko egitura gordeko dute.

Olalde etxearen inguruko Hiri Berrikuntzarako Plan Bereziaren helburuen artean leudeke, hiri-lurzorua deskongestionatzea, zuzkidura publikoak sortzea, ingurua saneatzea, hiria berroneratzea eta birgaitzea, barne-erreforma, irisgarritasun-arazoak edo estetika-arazoak konpontzea, etab.

69. artikuluan azaltzen da Plan Berezien edukia Plan Partzialenera egokituko dela. 68. artikuluan Plan Partzialek eta Plan bereziek izan behar dituzten dokumentuak zehazten dira:

a) Memoria informatiboa eta justifikatiboa. Plangintza ahalmena baliatzeko beharrezko irizpen elementuak dakartzan informazio guztia jaso beharko du; zehazki, erabakiak hartzeko alternatibak formulatzeko eta hautatzeko prozesuaren azalpena, herritarrek egindako alegazioen, iradokizunen eta erreklamazioen azterketa, eta plan orokorrak ezarritako egiturazko eta zuzentzarazko antolamenduari egokitzea.

b) Informazio-planoak.

c) Antolamendu xehatuaren planoak.

d) Egikaritzea antolatzeke eta kudeatzeko jarraibideen azterketa.

e) Plan orokorreko arauak garatzeko hirigintza-arauak.

f) Ekonomiaren eta finantzen aldetik duen bideragarritasunaren azterketa.

Ingurumen-ebaluazio estrategiko sinplifikatua:

Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailaren ingurumen-ebaluazio estrategiko sinplifikatuaren txostena jaso zen 2020ko uztailaren 9an.

Iraunkortasun ekonomikoari buruzko memoria:

Horrez gain, oro har, araudi ezberdinen eguneratzeak beste hainbat dokumentazio gehitu beharra dakar, hala, Plan Bereziari iraunkortasun ekonomikoari buruzko txostena gehitu zaio (7/2015 Legearen 22.4 artikulua araberan). Plan Bereziaren atal horrek, Plan Bereziak



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07E6000B13BC00B4Y31E4T6O3

Sinadurea eta data

JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA - 17/11/2022
ARITZ ABAROA CANTUARIENSE(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-BERMEOKO ALKATEA - 17/11/2022
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 17/11/2022 11:21:21

EXPEDIENTE ::
2019IDA_ERA_0189
Data: 14/10/2019
Lekua: Bermeon
Erregistro uniditatea:
Erregistro nagusia



Udal ogasunean duen eragina aztertzen du, Udal finantza jasangarritasun bermatze aldera. Plan Bereziak positiboki balioesten du esku-hartzeak Udal finantzetan izan lezakeen eragina.

Genero ikuspegitik Plan Bereziak lukeen eragina:

Plan bereziak genero ikuspegitik eginiko azterketan ez du eragin negatiborik aurreikusten. Kontuan izan behar da, genero ikuspegitik hobekuntza bezala hartzen direla hiri-espazioaren kalitatea hobetzea modu naturalean irisgarritasunarekin lotuta, segurtasun-pertzepzioa eta erabileren nahasketa.

Hala, Hiri Berrikuntzarako Plan Bereziaren helburuek ildo hori jarraitzen dute.

Eragin linguistikoaren Ebaluazioa:

Bestalde, Euskadiko toki-erakundeetan hizkuntza ofizialen erabilera instituzionala eta administratiboa normalizatzeari buruzko 179/2019 dekretuaren 53 artikuluan xedatzen da Planek hizkuntza azterlanean izango duten irismena zehaztuko dela.

Eusko Jaurlaritzaren Hizkuntza Politika Sailak eragin linguistikoaren ebaluazioa burutzeko ezarri dituen bideak hurrengoak dira. Lehenengo eta behin, planek hizkuntzan izango duten eragin linguistikoaren irismena nolakoa izango den jakin beharko da. Irismen horren arabera, Planaren eragin linguistikoaren ebaluazioa burutu behar den ala ez jakingo da.

Aipatutako irismen dokumentuan datuak sartuz, ondoriozta liteke, Plan Berezi honek ez duela eragin linguistiko negatiborik izango.

Beraz, 179/2019 dekretuaren 53 artikuluan xedatzen da:

2.- Adierazleok aztertu ondoren, udal-zerbitzu teknikoek hizkuntza-azterlanaren irismenari buruzko txostena bidaliko diote plan edo proiektuari funtsezko onarpena emateko eskumena duen udal-organo eskudunari.

a) Baldin plan edo proiektuaren irismenari buruzko proposamenak ondorioztatzen badu ez dagoela hizkuntza-inpaktu esanguratsurik, hizkuntza-inpaktuaren azterlanik ez egiteko gomendatuko du.

Aipatu bezala ez denez hizkuntza-inpaktu esanguratsurik aurreikusten, ELE hizkuntza-inpaktuaren azterlana egitea ez litzateke beharrezkoa.

Bigarrena: Plan berezien tramitazioari buruz hauxe ezarten dau 2/2006 Legeak:

97. artikulua.–*Plan bereziak izapidetu eta onartzea.*

1.– Plan bereziak plan partzialetarako ezarritakoaren arabera egin, izapidetu eta onartuko dira. Lurzoru urbanizaezinari edo lurzoru urbanizagarri sektorizatu gabeari eragiten dioten babes- eta kontserbazio-plan bereziak direnean, hasierako onspena eman ondoren, foraldundiko ingurumen-organora bidaliko dira, edo lurralde historiko batean baino gehiagotan eragina badute Eusko Jaurlaritzakora, ingurumen-eraginaren baterako ebaluazioari buruz aurretiazko txostena egin dezan bi hilabeteko epean. Epe hori amaituta, aurrera egin ahal izango da izapideekin, prozedurari jarraipena emanez aurrean adierazitakoaren arabera.



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07E6000B13BC00B4Y31E4T6O3

Sinadurea eta data

JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA - 17/11/2022
ARITZ ABAROA CANTUARIENSE(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-BERMEOKO ALKATEA - 17/11/2022
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 17/11/2022 11:21:21

EXPEDIENTE ::
2019IDA_ERA_0189
Datea: 14/10/2019
Lekua: Bermeon
Erregistro unitadea:
Erregistro nagusia



Lege honetan arautzen diren hiri antolamendurako plan berezien kasuan, ez da eskatuko ingurumen-eraginaren baterako ebaluaziorik.

95. artikulua.– *Plan partzialak izapidetzea.*

1.– Plan partziala egitea udalei dagokie, berez, baina beste edozein pertsona fisiko edo juridikok ere egin dezake.

2.– Udalak hasierako onespena edo ezespren arrazoitua emango dio plan partzialari. Lehenengo kasuan, jendaurrean jarriko du, udalerriari dagokion lurralde historikoko aldirik ofizialean eta lurralde horretan tirada gehien duen egunkarian edo egunkarietan hasierako onespena emateko erabakia argitaratuz. Plana 20 eguneguz egongo da, gutxienez, jendaurrean, azken argitalpenaren egunetik aurrera.(...).

3.– Jendaurrean egondako epean aurkeztutako alegazioak ikusita, udalak behin-behingo edo behin betiko onartuko du plana, bidezko diren aldaketak egin ondoren. Aldaketak funtsezkoak badira, plan partzialaren testu bategin berri bat egingo da. Testu horri hasierako onespena emango zaio eta berriz ere jendaurrean jarriko da.

4.– Udalak plana behin-behingo edo behin betiko –dagokionez– onartzeko, sei hilabete izango ditu gehienez ere, hasierako onespena eman zaionetik kontatuta. Epe hori ebazpenik jakinarazi gabe igarotakoan, plan partziala alderdietako batek eskatuta aurkeztu baldin bada, interesdunak ezetsia izan dela iritzi ahal izango dio.

5.– (...).3.000 biztanletik gorako udalerrietan, udalaren bigarren onespena behin betiko onespena izango da.

6.– (...).3.000 biztanletik gorako udalerrietako udalek eskuordetzan utz diezaiekete plan partzialak behin betiko onartzeko ahalmena estatutuen arabera horretarako eskumena duten udalaz gaineko erakunde publikoei edo foru-aldundiari, betiere horiek eskuordetza onartzen badute.

Toki- administrazioen Oinarriak arautzen dauan 7/1985 Legearen 21.1. artikulua kontutan hartuta, eskumena alkatearena da, baina eskumen hori 2022ko ekainaren 16ko 2037. zenbakidun Alkatetza Dekretuz Tokiko Gobernu Batzarrak eskuordetuta dauka.

Hirugarrena: Ingurumen Ebaluazioari buruzko 21/2013 Legea eta, planen eta programen ingurumenaren gaineko eraginaren ebaluazio estrategikoa egiteko prozedura arautzen duen 211/2012 Dekretuan oinarrituz, ingurumen-ebaluazio estrategikoa sinplifikatua izapidetu da Eusko Jaurlaritzako ingurumen, lurralde plangintza eta etxebizitza sailean. Ingurumen Administrazioaren zuzendariak, Hiri Berrikuntzarako Plan Bereziaren ingurumen-txosten estrategikoa igorri du. Hori horrela, ebazpen horretan ezartzen diren neurrien babesle eta zuzentzaileak bete beharko dira.



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoa egiaztatu ahal dozu.

Kodea:
07E6000B13BC00B4Y31E4T6O3

Sinadurea eta data

JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA - 17/11/2022
ARITZ ABAROA CANTUARIENSE(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-BERMEOKO ALKATEA - 17/11/2022
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 17/11/2022 11:21:21

EXPEDIENTE ::
2019IDA_ERA_0189
Data: 14/10/2019
Lekua: Bermeon
Erregistro unidaidea:
Erregistro nagusia



2022ko irailaren 29an Niretxe S.L. enpresak, A.5 Lurralde Areako E.A. 5-8 Esku Hartze Areako Hiri Berrikuntzako Plan Bereziaren testu-bateginean, honako dokumentazio hau sartu da:

- Bizkaiko Foru Aldundiko Euskara, Kultura eta Kirol Saileko Kultura Zuzendaritzaren txostenean jasotako baldintzak.
- URA ur agentziak eskatutako zehaztapenak.
- Iraunkortasun ekonomikoari buruzko txostena: positiboki balioesten da esku-hartzeak Udal finantzetan izan lezakeen eragina.
- Genero ikuspegiaren inguruko azterketa: ez da eragin negatiborik aurreikusten
- Eragin linguistikoaren ebaluazioa: ez da eragin linguistiko negatiborik aurreikusten, beraz, ez danez hizkuntza-inpaktu esanguratsurik aurreikusten, ELE hizkuntza-inpaktuaren azterlana egitea ez da beharrezkoa.

Beraz, Olalde etxearen ingurua berroneratzeko Hiri Berrikuntzarako Plan Berezia, Lurzoru eta Hirigintza 2/2006 legeak ezarritako araubide eta irizpideetara egokitzen danez, hasieraz onartu daiteke.

Erabakia

Tokiko Gobernu Batzar honek, aho batez, honakoa ERABAKI DU:

LEHENENGOA: Almike kalean 2an kokatutako Olalde etxearen ingurua berroneratzeko Hiri Berrikuntzarako Plan Berezia hasieraz onartzea.

BIGARRENA: Erabaki hau jendaurrean jartzea, eta 20 eguneko alegazio epea zabaltzea Bizkaiko Aldizkari Ofizialean eta egunkari batean argitaratuta.

HIRUGARRENA: Hurrengo O soko Bilkuran erabaki honen barri ematea.

Eta honela izan daiten eta ondorio egokiak eragin daizan, ziurtagiri hau idazten dot, erabagia agertzen dan akta behin betiko onespeneren menpean dagoela ohartarazota (Toki Erakundearen Antolakuntza, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoa onartzen duen azaroaren 28ko 2568/1986 EDaren 206. artikulua arabera), Aritz Abaroa Cantuariense alkatearen aginduz eta oneretxiaz.

Orrri-oinean sinatzailea eta data



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07E6000B13BC00B4Y31E4T6O3

Sinadurea eta data

JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA - 17/11/2022
ARITZ ABAROA CANTUARIENSE(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-BERMEOKO ALKATEA - 17/11/2022
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 17/11/2022 11:21:21

EXPEDIENTE ::
2019IDA_ERA_0189
Data: 14/10/2019
Lekua: Bermeon
Erregistro unidatea:
Erregistro nagusia

CSV: 07E6000B13BC00B4Y31E4T6O3

